



ANEXO I I ERANSKINA

Relación de Propuestas ADMITIDAS ONARTUTAKO proposamenen zerrenda

Nº / Zk.	Propuesta / Proposamena	Resultado / Eraitza
3	Construcción de un parque infantil temático en el Concejo de Elía.	Admitida / Onartua
4	Redacción del proyecto para el Graderío verde y espacio vecinal frontón de Sarriguren.	Admitida / Onartua
8 y 9	Bancos en zona ajardinada de la C/ Doñana y Sarriguren.	Admitida / Onartua
14	Reforma parque infantil Bardenas Reales, 86	Admitida / Onartua

Relación de Propuestas NO ADMITIDAS EZ ONARTUTAKO proposamenen zerrenda

Nº Zk.	PROPUESTA PROPOSAMENA	RESULTADO ERAITZA
1.	Instalación de estructura cubierta para aparcamiento seguro de bicicletas en Gorraiz	No Admitida Ez Onartua
Motivo, en su caso Arrazoia, hala badagokio: <p>Aunque la propuesta es positiva y viable, debe tenerse en cuenta que el Ayuntamiento ha solicitado recientemente una base de bicicletas eléctricas en la misma ubicación, junto al consultorio médico. Por ello, se considera oportuno esperar a la implantación de este servicio, muy demandado por la ciudadanía y previsto para finales de 2026. Al coincidir con una actuación ya iniciada, la propuesta se descarta por el momento. No obstante, una vez en funcionamiento el servicio, podrá volver a presentarse en futuros presupuestos participativos, al cumplir con las normas de la convocatoria.</p> <p>Proposamena positiboa eta bideragarria bada ere, kontuan izan behar da Udalak duela gutxi bizikleta elektrikoen base bat eskatu duela leku berean, medikuaren kontsultategiaren ondoan. Horregatik, egokitzat jotzen da zerbitzu hori ezarri arte itxarotea. Herritarrek asko eskatzen dute zerbitzu hori, eta 2026. urtearen amaierarako aurreikusita dago. Dagoeneko hasita dagoen jarduketa batekin bat datorrenez, proposamena baztertu egin da oraingoz. Hala ere, behin zerbitzua martxan dagoela, etorkizuneko aurrekontu parte-hartzaileetan aurkeztu ahal izango da berriro, deialdiaren arauak betez gero.</p>		

2.	Parque Inclusivo en Ibiricu	No Admitida Ez Onartua
Motivo, en su caso Arrazoia, hala badagokio: <p>Se propone la creación de un parque infantil moderno, inclusivo y seguro en la parcela donde se ubica el parque actual del Concejo de Ibiricu. No obstante, consta informe del área de Urbanismo que impide ejecutar inversiones en dicha parcela, al formar parte de la unidad de ejecución UAO-3, pendiente de desarrollo. Por ello, al no resultar viable jurídicamente, la propuesta queda desestimada.</p> <p>Ibirikuko Kontzejuko egungo parkea dagoen lurzatian haur-parke moderno, inklusibo eta segurua sortzea proposatzen da. Hala ere, Hirigintza Arloaren txostenaren arabera, ezin da inbertsiorik egin lurzati horretan, UAO-3 egikaritze-unitatearen parte baita eta oraindik garatu gabe baitago. Horrenbestez, juridikoki bideragarria ez denez, proposamena ezetsi egiten da.</p>		



5. Zona cubierta en Egüés

No Admitida **Ez Onartua**

Motivo, en su caso Arrazoia, hala badagokio:

La propuesta plantea la cubrición de parques infantiles. Desde el área de Urbanismo se informa de que el coste mínimo estimado para este tipo de estructuras asciende a 73.000 euros, importe superior a la partida presupuestaria asignada a la convocatoria. En consecuencia, la propuesta queda descartada por insuficiencia presupuestaria.

Proposamenak haur-parkeak estaltzea planteatzen du. Hirigintza Arloak jakinarazi duenez, mota horretako egituren gutxieneko kostua 73.000 eurokoa da, eta zenbateko hori deialdi honetarako esleitutako aurrekontu-partida baino handiagoa da. Ondorioz, proposamena baztertu egiten da aurrekontu-baliabide nahikorik ez dagoelako.

6. Abrevadero ganadero en el monte de Elcano

No Admitida **Ez Onartua**

Motivo, en su caso Arrazoia, hala badagokio:

La propuesta consiste en instalar un punto de toma de agua y crear un abrevadero en el monte cercano a Elcano. Se considera que la actuación no responde al interés general, sino a una necesidad vinculada específicamente al sector ganadero, por lo que no cumple la base 7.b) de la convocatoria, al no beneficiar al conjunto de la población. En consecuencia, se desestima.

Proposamenak ura hartzeko puntu bat instalatzea eta Elkanotik gertu dagoen mendian abereentzako aska bat sortzea planteatzen du. Jarduketak ez dio interes orokorrari erantzuten, baizik eta abeltzaintza-sektoreari berriaz lotutako premia bati. Horregatik, ez du betetzen deialdiaren 7.b) oinarria, ez baitio udalerriko biztanleria osoari mesede egiten. Ondorioz, proposamena ezetsi egiten da.

7. Autobús Urbano en el municipio de Egüés

No Admitida **Ez Onartua**

Motivo, en su caso Arrazoia, hala badagokio:

La propuesta plantea la creación de un servicio de autobús urbano entre Egüés y Pamplona. Sin perjuicio de las cuestiones competenciales que pudieran concurrir en materia de transporte colectivo urbano, el coste de la actuación resulta desproporcionado respecto de la financiación prevista para esta convocatoria, fijada en 50.000 euros. Por ello, se descarta por insuficiencia de recursos económicos.

Proposamenak Egues eta Iruñea lotuko dituen hiri-autobus zerbitzu bat sortzea planteatzen du. Hiri-garraio kolektiboaren arloan egon daitezkeen eskumen-kontuak alde batera utzita, jarduketaren kostua neurritz kanpoko da deialdi honetarako aurreikusitako finantzaketarekin alderatuta, 50.000 eurokoa baita. Horregatik, proposamena baztertu egiten da baliabide ekonomiko nahikorik ez dagoelako.

10. Trastoteka municipal de objetos

No Admitida **Ez Onartua**

Motivo, en su caso Arrazoia, hala badagokio:

La propuesta plantea la creación de un servicio público de préstamo de objetos de uso ocasional. Aunque se trata de una idea de interés, su implantación exigiría gestión ordinaria, personal asignado, regulación del servicio, adquisición de material inventariable, mantenimiento y posibles reparaciones. En consecuencia, la actuación tendría naturaleza de gasto corriente y no de inversión, requisito exigido por la convocatoria, por lo que se desestima.

Proposamenak noizbehinkako erabilerako objektuak mailegatzeko zerbitzu publiko bat sortzea planteatzen du. Intereseko ideia bada ere, zerbitzua abian jartzeak ohiko kudeaketa, langile esleituak, zerbitzuaren arauketa, material inbentariagarria erostea, mantentze-



AYUNTAMIENTO
VALLE DE EGÜÉS
EGUESIBARKO
UDALA



lanak eta balizko konponketak eskatuko lituzke. Ondorioz, jarduketak gastu arruntaren izaera izango luke, eta ez inbertsioarena; deialdiak, ordea, inbertsioa izatea eskatzen du. Horregatik, proposamena ezetsi egiten da.

11. Ampliación del aula de estudio y mejora de insonorización en la biblioteca municipal

No Admitida **Ez Onartua**

Motivo, en su caso Arrazoia, hala badagokio:

La propuesta plantea ampliar el aula de estudio de la biblioteca municipal y mejorar su insonorización. No obstante, el Ayuntamiento está trabajando en el proyecto de una futura Casa de Cultura, que contempla una sala de estudio amplia y dotada de medios adecuados. Por ello, la actuación supondría duplicar una inversión ya prevista por el Ayuntamiento, por lo que se desestima.

Proposamenak udal liburutegiko ikasgela handitzea eta intsonorizazioa hobetzea planteatzen du. Hala ere, Udala etorkizuneko Kultur Etxearen proiektua lantzen ari da, eta proiektu horrek ikasgela zabal eta behar bezala hornitua aurreikusten du. Horregatik, jarduketak Udalak dagoeneko aurreikusita duen inbertsio bat bikoiztea ekarriko luke, eta proposamena ezetsi egiten da.

12. Ampliación de biblioteca municipal de estudio

No Admitida **Ez Onartua**

Motivo, en su caso Arrazoia, hala badagokio:

La propuesta se desestima por los mismos motivos indicados en la propuesta 2.11, al estar ya contemplada una sala de estudio adecuada en el proyecto de la futura Casa de Cultura.

Proposamena ezetsi egiten da 2.11 proposamenean adierazitako arrazoi berberengatik, etorkizuneko Kultur Etxearen proiektuan ikasgela egokia aurreikusita baitago.

13. Reino de Navarra Activa

No Admitida **Ez Onartua**

Motivo, en su caso Arrazoia, hala badagokio:

La propuesta plantea la creación de un corredor deportivo al aire libre en la Avenida Reino de Navarra de Sarriguren, mediante la instalación de diferentes estaciones deportivas. No se considera viable técnicamente ubicar estas instalaciones en la mediana de dicha avenida. Asimismo, una posible ubicación alternativa en la Avenida de la Unión Europea podría generar problemas de movilidad peatonal y de seguridad vial. Por ello, la propuesta se desestima por inviabilidad técnica.

Proposamenak aire zabaleko kirol-korridore bat sortzea planteatzen du Sarrigurengo Nafarroako Erresuma etorbidean, erabilera libreko kirol-guneak instalatuz. Ez da teknikoki bideragarritzat jotzen instalazio horiek etorbide horretako erdibitzailean jartzea. Era berean, Europar Batasuneko etorbidean kokatzeko aukerak oinezkoen mugikortasunean eta bide-segurtasunean arazoak sor ditzake. Horregatik, proposamena ezetsi egiten da bideragarritasun teknikorik ez duelako.